


Lezoko zine agenda

EKAINA

JUNIO

2004



Gezala

AUDITORIUMA


800
zine ma



LA NOCHE DEL CAZADOR

Klasiko ahaztezina Robert Mitchum buru zuen pelikula hau. "Hate" (gorrotoa) eta "Love" (amodioa) hitzak esku bakoitzean tatuaturik dituen sermolaria herriz herri doa bere ebangelioarekin arimak salbatu baino kondenatuz. Helburua 10.000 dolar eskuratzea. Oztopoa haien gordelekua bi haurrek bakarrik dakitela. Gogoratze hutsak hotzikara sortzen duen Robert Mitchumen antzeppen hau, ziurrenik bere karrerako lanik arriskutsuena izan zen pertsonaiaren zitaltasunagatik.

1955, EEBB 79 min. Charles Laughton.
Robert Mitchum, Shelley Winters, Lillian Gish, James Gleason.



LA VIRGEN DE LOS SICARIOS

Kolonbiari buruz hitz egiten dugun bakoitzean indarkeria datorri gu burura. Ez dizu pelikula honek ideia hori kenduko. Kasu hone-tan ere, indarkeria da historiaren mamia. Edonola, indarkeriak izan ditzaken mila aurpegietako bat erakusten da hemen. Beharba-da guretzat oso ezaguna ez dena, baina kolonbia eta antzeko egoe-ratan errealtate gordina dena: sikarioena! Dardarka jartzeko modukoa!

1998, Kolonbia, Fr., Esp. 98 min. Barbet Schroeder.
Germán Jaramillo, Anderson Ballesteros, Juan David Restrepo.



HAMAM EL BAÑO TURCO

Francesco italiarrari bere izeba Anitak Turkian duen hamam (bainu etxea) bat uzten dio herentzian. Francesco haruntz doa tramite buro-kratikoak egin eta eraikina saltzeko asmoz. Hamam horretako langile izan ziren familiaren etxean hartuko du osta-tu eta bertako semea ezagutu bezain pronto plan guztiak aldatuko ditu. Turkia, bainuak, amodioak, fideltausun eza... Ordu eta erdi oso atsegi-na igarotzeko parada ezin hobea... eta bide batez, geure buruei buruz zerbait berria ezagutzeko aukera?


1997, It., Esp., Turkia. 94 min. Ferzan Ozpetek.
Alessandro Gassman, Francesca d'Aloja, Carlos Cecchi, Halil Ergün.



ROMA CIUDAD ABIERTA

Naziak Erroma okupatua dute. Gestapok erresistentzia buru den Man-fredi atxilotu nahi du. Anne Mariek bere etxean gordeko ditu Manfredi eta lagunak baina alferrik. Naziak Italia utzi eta bi hilabetetara filmatu zuen Rossellinik pelikula hau, estudioak bonbardaturik, pelikula zinta kalitate txarrekoarekin eta hasiberriez osatutako antzezle koadrila batekin. Ondoren neorealismo bezala ezagutuko zen mugimenduari hasiera eman zioten pelikuletako bat da Rosselliniren hau. Cannesen 1946ean, zinemaldiko epaimahaiaren sari nagusia jaso zuen.

1945, Italia. 100 min. Roberto Rossellini.
Aldo Fabrizi, Anna Magnani, Marcello Pagliero, Nando Bruno.



MI FAMILIA

Etnia, kultura eta jatorri askotako pertsonen osatzen duten gizartea da iparamerikarra. Etorrin talde indartsuenetarikoa mexikarrena da. Txikanoak jatorriz etnia mexikarrekoak izanda AEB-etako hiritartasuna lortu dutenak izaki, horiek gizarte horretan duten papera erakustiko digu filmeak. Familia bereko hiru belaunaldiren historioaren bidez gizarte oso konplexua den AEBetako errealtatea oso ongi isladatzea lortzen du zuzendariak. Aurpegi ezagunak eta zertzelada gogorrez kontatutako hain ezezaguna zaigun txikanoen historia.


1995, EEBB 128 min. Gregory Nava.
Antzez.: Jimmy Smits, Edward James Olmos, Esai Morales, Jenny Gago.



EL GRAN AZUL

Pelikula gustatzen ez bazaizu ere "argazkia zoragarria zen" esa-naz aterako zarela ziur. Irudi eta ingurune eguzkitsu zoragarriak ikusteko aukera izango da lortuko duzun gutxienekoa. Hortik aurrera oso modu egokian irudikatutako pertsonaiak eta benetan kuriosoa bezain ezezaguna zaigun gaia: apnea (arnasik hartu gabe urazpira jeista) txapelketak. Minutu oso sentiberatsu eta politik!


1988, Frantz., It., EEBB 162 min. Luc Besson.
Rossana Arquete, Jean-Marc Barr, Jean Reno.



LA CENA DE LOS IDIOTAS

Aberaskume eta yuppie lagun talde batek asteazkenero afari bat prestatzen du eta lehiaketa antzeko bat antolatzen dute: astero lagunetako batek pertsona bat gonbidatu behar du afaltzera, ergelena ekartzeko gai nor den ondorioztatzeko. Brochantek Pignon izeneko bat gonbidatzea lortzen du, zalantzarik gabe irabazle izango dena, baina aurreikusi gabeko arazo bat sortuko da: Pignon balbeaduna da!

1998, Frantzia. 80 min. Francis Veber.
Thierry Lhermitte, Jacques Villeret, Francis Huster, Daniel Prévost.



LLUVIA EN LOS ZAPATOS

Pelikula txiki atsegin horietakoa da honako hau. Ez du ezer berri-rik deskubritzen eta ez da seguruenik zinemaren historian sartu-ko, baina momentu atseginak pasarazteko adina gaitasuna badu. Victorrek Sylviarekin zuen harremana berreskuratu nahi du, bai-na neskaren planak beste batekin ezkontzekoak dira. Bai, Penelope Cruz azaltzen da, baina ez pentsa pelikula izorratzen duenik, eh?

1998, EEBB, EB, Esp., Fr., Al. 96 min. María Ripoll.
Lena Headay, Douglas Henshall, Penélope Cruz, Gustavo Salmerón, Neil Stuke.



ANNA - ANNA

Anna kopiagailu batekin lanean ari den bitartean eskolako atezaina sartzen da gelan. Bera kopiagailuan ezkutatzen saiatuko da eta nahi gabe, botoiari emanaz, martxan jarriko du. Kopiagailuen egin behar nagusia kopiak egitea denez Anna-ren kopia bat egingo du, annA alegia. Anna bat bihurria bazen pentsa zer izan daitezken bi Anna.

Filme benetan farregarri eta entretenigarria.


1993, Al., Sui, Lux. 80 min. Jürgen Brauer eta Greti Kläy.
Lea Hürlimann, Wanda Hürlimann, Ilona Schulz.



MARTINA ETA XAGUTXOAK

Martina landan lasai bizi den neskato txikia da. Egun batean berak eta bere bi lagun arratoiek hirira joatea erabakitzen dute eta han Sussi izeneko hiriko arratoi bat ezagutuko dute. Martina, bere lagunak eta Sussik hiriaren alde politak ezagutzen dituzte, baina historia guztietan bezala alde txarrak ere badira: kasu honetan estoldetako arratoi maltzurak. Zer gertatuko da?

1998, Danimarka 62 min. Jannik Hastrup.
Marrazki bizidunak.



AMETSEN LAPURRA

Pelikula honetan fantasiako historia kontatzen da oso irudi dinamiko eta koloretsuen bidez. Groomo zientifiko oso gaiztoa da. Bere nahia lurra bere esku izatea da. Horretarako gomendagarriak ez diren trikimailuak erabiliko ditu. Bat jendeari ametsak lapurtu eta ondorioz ilusiorik gabe uztea izango da. 7 urte dituen Nina neskatogazteak ez dio zientzia gizonari bere helburuak betetzen utziko. 2001eko Goya sarietako animaziozko filme hoberenerako lehian aritu zen.

2000, EH. 79 min. Angel Alonso.
Marrazki bizidunak.



JACK, AMAZONASKO ERREGE

Jack lasai eta pozik bizi da bere basoan. Beste animaliei txantxak eginaz eta irrifarra beti soinean, bizitza lasaia darama protagonistak Conrad izeneko dirudun pertsonai maltzurra iristen den arte. Honek Jacken berri du eta berau harrapatu nahiko du bere interesetarako. Horretarako bide zuzena hartuko du: basoa erosi. Marrazki paregabea duen filme honek nazioarteko zinemalditan sariak irabazitakoa da.

1993, Danimarka 73 min. Flemming Quist Moller.
Marrazki bizidunak.

EKAINA - JUNIO

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 3	22:00	LA NOCHE DEL CAZADOR
LARUNBATA 5	22:00	MI FAMILA
IGANDEA 6	16:30	ANNA - ANNA
OSTEGUNA 10	22:00	LA VIRGEN DE LOS SICARIOS
LARUNBATA 12	22:00	EL GRAN AZUL
IGANDEA 13	16:30	MARTINA ETA XAGUTXOAK
OSTEGUNA 17	22:00	HAMAM EL BAÑO TURCO
LARUNBATA 19	22:00	LA CENA DE LOS IDIOTAS
IGANDEA 20	16:30	AMETSEN LAPURRA
OSTEGUNA 24	22:00	ROMA CIUDAD ABIERTA
LARUNBATA 26	22:00	LLUVIA EN LOS ZAPATOS
IGANDEA 27	16:30	JACK, AMAZONASKO ERREGE

MUSIKA eta ANTZERKIA

eguna/día	ordua/hora	ekitaldia
OSTIRALA 11	22:00	“LAUA” JEXUMAI LOPETEGI
OSTIRALA 18	22:00	“7 GEZUR TXIKI” RAMON AGIRRE
OSTIRALA 25	22:30	“KOMEDIANTE TUNANTE BAÑO...”
LARUNBATA 26	19:30	ORRATX! ANTZERKI TALDEA

MUSIKA



5,00 €

"LAUA", JEXUXMAI LOPETEGIren disko berriaren aurkezpena

Akelarre taldean kantatzeagatik egin zen ezaguna Jexuxmai Lopetegi, zortzi urteko ibilbidean 5 disko grabatu zituelarik. Kepa Junkerarekin egin zituen bere hurrengo urratsak, *"kalejira al buk"* diskoan eta zuzeneko emanaldietan parte hartuz.

1994an ekin zion bere bakarkako ibilbideari Jexuxmai & Noizbehinka aurkeztuz. Gero-
ra beste hiru disko etorri dira; *"laua"* izenekoak, esku artean dugun hau. Denbora guzti honetan, hainbat musikari ezagunentzat hitzak eta kantuak eginez, grabaketa eta pro-
dukzioak eginez etab... kolaboratu du. Musikari ezagunen kolaborazioek eta Pako
Aristi, Xabier Lete eta Asier Serranoren hitz banak borobiltzen dute Jexuxmai bera egi-
le duten 12 kantuko lan hau.

"Laua" da Jexuxmai Lopetegiren lan berriaren izena. Lautadak sinbologia berezia hartzen duelako lan honetan eta bere bakarkako ibilbidean *"lau"* garren lana ere bade-
lako beharbada.

"[...] bere lan guztien artean borobilena da, sakonena, gozagarriena. Hitzen mailak bat egiten du musikaren maila altuarekin, eta bien arteko oreka ondo konpontzea lortu du musikari zarauztarrak, patxadaz eta inongo presarik gabe egindako grabazioan. [...]" (Pako Aristi)

ANTZERKIA



DOAN

"ZAZPI GEZUR TXIKI" antzerki obraren antzezpena RAMON AGIRRE eta JOSERRA SENPERENArek eskutik.

KUTXA - Gizarte ekintzak babesturik

"Zazpi Gezur Txiki" obra, Ramon Agirre eta Joserra Senperenaren, eskutik ikusi ahal izango da Gezala Auditoriumean, doan. Antzerkia eta musika uztartzen dituen ikuski-
zuna da. Joan den urtean izan genuen bikote honen berri *"Ondo esan beharko"* ikuski-
zunarekin. Antzerkia eta musika uztartzen duen bikote honekin Gezalan jendea heste-
ak bota beharrean parrez lehertzen gelditu zen. Oraingoan ere, ironia erabiliz,
gezuraren apologia egiten da. Horretarako zenbait pertsonaia bitxiren pasadizoak
kontatu eta kantatzen dira. Hala nola, egunerokotasunak itotako saltzailea, neska
sexuadiktoa, telebistan eguraldia iragartzen duen aurkezlea, pijo markazale amorratua
etab Hainbat kontu eta beste hainbat kantu estilo batetik bestera jauzi eginez. Hori da
"Zazpi Gezur Txiki".

Hainbat kontakizun eta hainbat kantu: abisatu gabe doaz batetik bestera. Balts antzeko
zerbaitekin hasiko zaigu eta gero, popa, rap eta baita doinu folk ezagunak, nahiz eta
letrak *"7 Gezur Txiki"* ikuskizun arina, zertxobait lotsagabea, baina umore txarrik ez
duena da.

**KOMEDIANTE TUNANTE BAINO...
ORRATX! ANTZERKI TALDEA**

Alesio komediante napolitarra Europa aldenik alde pasatakoa da. Han eta hemen bere
"talentua eta umore landua" erakusten du. Herrialde guziak ez dira berdinak, ordea, eta
hauetako zenbaitetatik, tira, askotatik, hankak arin astinduz alde egin beharrean gerta-
tu da. Andaluziako lurretara ailegatuta, Sevillan egitekoa den Komikoen Lehiaketaren
berri izan du, eta hara abiatu da Triton bere morroiarekin.

Sevilla hiri handia izaki, han ere egunero jan behar ba, antzezlanen batean papera lor-
tu nahian, bila hasiko da *Alesio* bere morroi Tritonen laguntza bikainarekin. Hala dabi-
lela, ustekabea, aktore lana ikasi nahi duen Luziarekin egingo du topo eta, badaezpa-
dako komediante talde batean hartuko dituzte antzerki lehiaketan parte hartu ahal
izateko. Hortik aurrera, gaizki ulertuak, egia erdiak eta egoera bitxiak uneoroko osagai
bihurtuko dira.



5,00 €

Martxoko eta apirileko agendetan argitaratutako

GALDETEGIAREN EMAITZAK:

Ekaineko agendako txoko hau aprobetxatu nahi genuke aurreko hilabetetan argitaratu ditugun galdetegiei erantzun duzuenoi eskerrak emateko. Berrir ere gogoratu beharrean aurkitzen gara zuek bidaltzen dizkiguzuen iritziak guretzako oro garrantzitsuak direla. Beraz, galderak erantzuten zuen denbora eskaini duzuen guztioi eskerrak ematen dizkizuegu.


Bestalde, aurrekoetan galdetegia bete ez baduzue, baina zuen iritziak helarazi nahi badizkiguzue gogora ezazue, bai udaleko arkupetan duzuen postontzia, bai posta elektronikoa bide egokiak izan daitezkeela. Hau da, iradokizunak, iritziak, kezak... azaltzeko garaia ez da amaitu, urte osoan bideratu ditzakezue!

Bestalde, azpian galdetegitik ateratako emaitza nagusien berri ematen dizugu:

» Zer deritzozu zinema 800 egitasmoaren garapenari buruz?

Ongi% 92,9

Besterik% 7,1



» Zer iruditzen zaizu orain arte egin den programazioa?

Ongi% 57,1

Pelikula ikusiegiak% 28,6

Besterik% 14,3

